

Rugbyan gora



Joan den urtean maila galdu zuen arren, aurtan Bera-Bera rugby taldeak Ohorezko B Mailara bueltatzea lortu du. Alfonso Feljooren mutilek denboraldi bikaina egin dute eta azken partidua galdu zuten arren, helburua lortu dute.

Bera-Berakoak pozik oporretara

Bera-Bera eskubaloi taldeak denboraldi hasieran ezarritako helburua eskuratu du. Ozta-ozta, azken partiduan, neska donostiarrek Europarako txartela lortu zuten.

Azken partiduan garaipena erdietsi eta gero, Bera-Berak Europarako txartela lortu du datorren denboraldirako. Denboraldiak gorabehera asko izan ditu, batez ere, lesioak zirela eta. Aurrendenboraldian hasi ziren arazo fisikoak. Eider Rubiok laguntza gutxi eskaini ahal izan die taldekideei denboraldi osoan, eta hori gutxi balitz, Tati Garmendia, Esmé Lopez edota Amaia Ugartemendia ere min hartuta ibili dira.

Lesioen eraginez, harrobitik ateratako neskak taldean maiz sartu dira. Reyes Karrere taldeko entrenatzaileak dioskunez, *"jokalari gazteek, taldearen erit-mora egokitzeko, asko sufritu behar izan dute, aldamenean puntako jokalaririk izan baitituzte"*. Sufrimenduak sufrimendu, Reyes pozik dago gazteen lanarekin, batik bat Patricia Pinedorekin: *"Patriciak minutu asko jokatu behar izan ditu, baina hala ere, maila ona emateko gai izan da"*. Aurtengo denboraldirako, taldeak, aspaldiko partez, atezain atzerritarra fitxatu behar izan zuen. Entrenatzaile

gipuzkoarrak adierazi digunez, *"harrobia-ri lehenasuna ematen jarraitu nahi dugu, baina atezain on gutxi dagoenez, kanpora jo behar izan genuen"*.

Europako atsekabea

Ligan aurrez jarritako helburua eskuratu duen arren, ustekabean Bera-Berak agur esan behar izan zion Europari. Danimarkan jokaturako joaneko partiduan donostiarrek jipoi galanta jaso zuten, eta Bidebietan aise nagusitu ziren arren, ez zuten kanporaketa gairiditu. *"Joaneko partiduan egun txarra izan genuen, eta horrez gain, epaileen lana ez zen batere ona izan. Bigarren partiduan gehiago ginela erakutsi genuen, baina, tamalez, ez zen nahikoa izan"*, dio Reyesek.

Datorren denboraldiari begira, helburuak ez dira asko aldatuko. Dena den, donostiarrek aurtan aurrerapauso galanta eman dute. Benetan nabarmentzekoa da denboraldi honetan Bera-Berak Ferrobustalde indartsua menpean hartu izana Valentzia aldean. Bera Berako entrenatzailearen esanetan, *"garaipen hark berebiziko garrantzia izan zuen. Azkenean, Ferrobustekoak orduan galdutako puntuengatik ez dira txapeldun izan. Bestalde, kontuan hartu behar da talde amateur batek erabat profesionala den talde bati irabazi ziola"*.

Pilota finala atzeratuta



Atano III.ean datorren igandean, hilak 20, jokatzekoa zen buruz buruko finala atzeratu da. Eugi finalerako sailkatuta dago, baina hala ere, Beloki eta Barriolaren arteko finalurrekoa atzeratu behar izan da, Barriola min hartuta dagoelako.

Maratoi erdia Donostian

Hilaren 20an, igandea, Donostiako maratoi erdiaren lehen edizioa jokatu da. Lasterketak 21.097 metro izango ditu. Irteera Kursaalera izango da 10.00etan, eta korrikalariak Donostiako kaleetan barrena ibiliko dira. Antolatzaileek 500 bat lagun bil-tzea espero dute.

